

Saneamendua hobetzeko jarduerak

Vitoria-Gasteizko hustubideko gainezkabideetan klapetak jartzea

Vitoria-Gasteizko saneamendu sarea hiriko ur zikinak biltzen ibiltzen den hodi eta ur biltzaileen bilbaduraz osatuta dago, ondoren ur horiek Krispiñako araztegiaren tratatzeko. Biltzaile guztiek ur zikinak bidaltzen dituzte **hustubide nagusia** delako azpiegiturara. Zadorra ibaiarekin paraleloa da eta bere eginkizuna ekarritako ur guztia biltzea eta araztegiraino eramatea da.

Saneamendu sistematik ur zikinak nahiz eurikoak ibiltzen direnez, gainezkabideak edo ibaira **ura isurtzeko puntuak daude, hustubidearen emaria doitzeko eta araztegiara ur gehiegi sartu ez dadin**. Hala, euri asko dagoenean soberan dagoen ura bertara bideratu daiteke. Baina, kontrako norakoan, hustubideek Zadorrako ura hustubidera sartzeko balio dezakete, ibaiaren emaria handitu eta bere ur maila azpiegitura horietara heltzen denean.

Euri asko egiten duenean, ibaiko ura ez sartzeko asmoz, ura itzultzearen aurkako klapetak edo balbulak ipini dira hiriko hustubide nagusiko lau gainezkabideetan. Hari esker, ur zikin

arazketaren errendimenduak nabarmen hobetuko dira, ur zikinekin nahastutako ur garbia tratatu behar ez delako. Gainera, hustubide nagusiaren barrualdetik kiratsa ateratzearen arazoa gutxituko da gainezkabideetako leihoen funtzioarengatik.

Klapetak ipintzearekin batera, lhurreko sarreran dagoen gainezkabidean iragazki modukoak jarri dira. Iragazki moduko horien eginkizuna ibaiaren ura hustean ur gaineiko gauzak eta gainerako solidoak ez irtetea da, ibaiaren bazterretako kutsadura gutxitzeko (batez ere ikusi daitekeena).

Lan hori 2015eko abuztuaren 24an hasi zen, bost hilabetetan gauzatzeko epearekin eta abenduaren 10ean amaitu zen.

Lanaren azken likidazioa 742.669,52 € izan zen (BEZ gabe). Honako zenbatekoa estaltzeko, AMVISAK obraren kostuaren %80a 2007/2013 Europako Kohesio Fondoa-Federretik lortu du.



Europar Batasuna

Eskualde Garapenerako
Europar Funtsak

“Europa eskualdez eskualde eginez”

Lhurreko gainezkabidea,
lana egin baino lehen
eta jardueraren ondoren

Etxeko kontsumoari buruz informatzeko kanpaina

Martxoaren eta ekainaren bitartean **ur kontsumoei buruz sentsibilizazioko eta aholkularitzako kanpaina bat** egingo dute, hiriko etxebizitzaren lagin jakin bati zuzenduta.

Bisita bakoitza 15-20 minutukoa izango da, ura kontsumitzen den guneen azterketa barne (bainugelak eta sukaldea). Gainera, sentsibilizatze materiala eta aurrezteko produktuak (txorrotetan eta dutxan ipintzeko ur emariaren murrizkailuak) banatuko dituzte. Bestetik, etxebizitzaren eraginkortasun maila egiaztatuko da eta, bide batez, zalantzak argitu eta hainbat

gairi buruzko informazioa eskainiko dute: Zerbitzua bera, kontsumoa, fakturazioa eta komunaren erabilerari zein etxebizitzaren hondakinei lotutako zenbait kontu.

Ekimen honen bitartez, **AMVISAKo Futura Planaren eta EGIBIDEn arteko lankidetzari berriro ere gauzatzen da**. Horretarako, Goi Mailako Hezkuntza Zikloetako ikasleen praktika programaz baliatzen dira, izan ere, ikasleek eurek egingo dituzte bisita horiek eta datuak biltzeaz nahiz ingurumen heziketako lanaz arduratuko dira. Etxebizitza lagin horretan ere sartuko dira norbere borondatez parte

hartu nahi duten ikastetxe hartako familiak eta Etxebizitza Berdeak 2016 Programarenak. Xedea 300 etxebizitza inguruk parte hartzea da.

Etxebizitzetara zuzentzen den horrelako lehenengo ekimena izanik, esperientzia pilotu bilakatuko da. Behin emaitzak aztertuta, hurrengo urteetan luzatu liteke auzoen edo etxebizitza moten arabera.

**IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU,
EDO IRITZIA EMAN?**

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org

